

# azaroaren 30a Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Egunaren



International Association of  
**Educating Cities**  
Association Internationale des  
**Villes Éducatrices**  
Asociación Internacional de  
**Ciudades Educadoras**

## ADIERAZPENA 2019

Gaur egun, inork ez du zalantzan jartzen hiri handiak nahiz txikiak funtsezko agertokiak direla, eta gizateriak aurrez aurre dituen erronkek beren konplexutasun guztiarekin eragiten dutela horietan. Hirietan, espezie gisa gure biziraupenari desafio egiten dioten arazo asko agertzen dira, hala nola klima-aldaketan eragiten duen kutsadura edo pertsonen potentzialaren garapenean eragiten duten desoreka sozialak, gure bizi-aukerak murriztuz eta, horren ondorioz, kolektiboki zaugarriago bihurtuz.

Hiri Hezitzaileok desafio horiei erantzutearen alde egiten dugu, hezkuntza jarriz ezinbesteko aldaketaren bultzatzaile gisa, hiri-testuinguru iraunkorrako, inklusiboagoak, kohesionatuagoak eta konprometituagoak sortzeko. Bizitza osoan zehar hezkuntzaren ikuspegi zabala izateko eta gure udal-politiken hezkuntza-eragina ahalik eta handiena izateko konpromisoa dugu, hiria birpentsatuz hezkuntza-ekosistema inklusibo eta dinamiko gisa, eta hirian bizi diren pertsonekin etengabeko elkarriketan.

Hiri Hezitzaileok jabetzen gara aurre egin beharreko erronkei ezin zaizkiela irtenbide aldebakarrekoak eta sinpleak eman; aitzitik, kontraesana onartzen duten eta ezagutza-, elkarriketa- eta partaidetza-prozesuak proposatzen dituzten espazioak artikulatu behar dira, gure garaiko ziurgabetasunean bizitzeko modurik onena den aldetik, Hiri Hezitzaileen Gutunaren hitzaurrean adierazten den bezala.

Horregatik, aurtengo Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Egunaren leloak garrantzi handia hartu du: **“Entzun hiriari, hiria aldatzeko”**. Bi noranzkoko bidea da, eta tokiko gobernuek nahiz tokiko gizarte-eragile guztiek (gizarte zibil antolatua, sektore pribatua, herritarrak, etab.) egin behar dute bide hori, joan-etorri etengabe, parte-hartzailean eta inklusiboan.

Alde horretatik, herritarrengandik hurbilen dagoen administrazioa garenez, komunikaziorako eta partaidetzarako hainbat kanal ezartzeko eta bultzatzeko konpromisoa hartu dugu, pertsonengan oinarritutako Hiri Hezitzaileago baten eraikuntzan elkarrekin aurrera egiteko eta XXI. mendeko erronkei erantzun berritzaileak eta eraginkorrak emateko.

**[HIRIAREN IZENA]**-(e)tik bat egiten dugu Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Eguneko ospakizunekin, eta pentsatzen dugu entzute aktiboaren alde egiteak elkartarekiko loturak sendotzeko, pertenezia-sentimendua indartzeko eta alde guztiek, bakoitzak gure ardurak izanik, Hiri Hezitzailea elkarrekin eraikitzeko aktiboki laguntzeko aukera ematen digula.

Ordezkatzen dudan erakundetik, eta nire alkate-kargutik, konpromiso irmoa hartzen dugu hiriari entzuteko eta hiria aldatzeko, ahots guztiak bilduko dituzten eta inor atzean utziko ez duen hiri bat sortzeko aukera emango diguten eraikuntza demokratiko eta parte-hartzaileko espazioak irekitzeko helburuarekin.

Ospakizun honen harira, jardueren programa bat prestatu dugu guztion parte-hartzearekin, hartu dugun konpromiso kolektiboa ikusgarri egiteko eta gure hirikide guztiekin partekatzeko. Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Egunarekin bat egiten dugu, beraz, beste hiri askorekin batera aritzeak pauso sendoz aurrera egiten eta hiri-eredu horren aldeko gure ahotsa entzunarazten lagunduko digun uste sendoarekin.